



HIRIGINTZA ONDAREAREN KATALOGOA

1. MEMORIA	pág.	2
1.1. Katalogoaren helburua.		2
1.2. Dokumentu iturriak.		2
1.3. Aplikazio arauak.		2
2. KATALOGATUTAKO ONDASUN ETA ELEMENTUEN ZERRENDA		3
2.1. Eraikinen ezaugarri orokorrak.		3
2.2. Interes bereziko eraikin eta elementuak.		4
2.3. Interes bereziko eraikinak eta elementuak babesteko erregimena.		5
2.4. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak 1997ko irailaren 11n emandako ebazpenaren barne dauden eremu eta elementuak.		5
3. HIRIGINTZAKO ARAUAK		6
3.1. Katalogatutako elementuen babes erregimena formulatzea.		6
3.2. Katalogatutako ondasun eta elementuen babes erregimena.		6
		7



1. MEMORIA

1.1. Katalogoaren helburua.

Hirigintzako antolamenduaren helburuetako bat herria era eramangarrian garatzeko neurri egokiak definitzea da, horrela herria gaur egungo egoerara egokitzeko, baina etorkizunean arazo larriarik sortu gabe.

Testuinguru horretan, aparteko garrantzia hartzen du ekimen berriek balio kolektiboa duten elementuak, edozein balio ekonomiko eta jabetza erregimen dutela ere, era bidegabean ez hondatzea.

Xede horrekin, indarrean dagoen hirigintza legeriak katalogoak arautzen ditu, alor horretan indarrean dagoen araudi sektorialak ezarritako mekanismoen hirigintzako tresna osagarri gisa.

Testuinguru horretan, dokumentu honek Altzoko udalerrian dauden interes arkitektoniko, historiko eta arkeologikoa duten ondasunen eta elementuen multzoa definitzen du.

Behin-behinik Ustezko Arkeologiaguneen erregimenari lotuta dauden eremu eta elementuei dagokionez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak 1997ko irailaren 11n emandako ebazpenean azaldu behar dira, 1997ko urriaren 10eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 208 zenbakian argitaratu zena.

1.2. Dokumentu iturriak.

Dokumentu honetan azaltzen den zerrenda hurrengo dokumentuetan azaltzen den informazio eta datuekin osatu da:

- * Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Euskal Herriko Ondare Historiko-Arkiektonikoaren behin-behineko Inbentarioa.
- * Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren Gipuzkoako higiezinaren ondare historiko-artistikoaren inbentarioa.
- * Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak 1997ko irailaren 11n emandako ebazpena, Ustezko Arkeologiaguneak zehazten dituena.

1.3 Aplikazio arauak.

Lehen esan den bezala, arkeologia arrazoiak direla eta, katalogo honetan azaltzen den zerrendan, Ustezko Arkeologiaguneen erregimenpean dauden eremu eta elementuak Eusko Jaurlaritzak, 1997ko irailaren 11n emandako ebazpenaren bidez irekitako espedientearen testuinguruak zehaztuko ditu.

Bestalde, ondorengo zerrendan ageri diren gainontzeko ondasun nahi elementuak Hirigintza Ondare Katalogatua Babesteko Arauetan ezartzen den babes erregimenak arautuko ditu, baita arlo horretan indarrean dagoen legeriak, hau da, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 7ko 7/1990 legeak.



2. KATALOGATUTAKO ONDASUN ETA ELEMENTUEN ZERRENDA.

2.1. Eraikinen ezaugarri orokorrak.

Altzoko eraikinen egungo egoera oso ezberdina da. Eraikinetako batzuk barrutik eraberritu dira, egungo erosotasun eskakizunak betetzen dituzten azpiegiturak eta eremuak izan ditzaten. Baina, hala ere, baserri asko eta asko oso hondatuta daude edo guztiz eraberritu behar dira. Era berean, oso baserri gutxi eraberritu dira kanpotik. Ohiko konponketa lana estalkiak edo teilatuak konpontzea izaten da. Egurrezko estalki zaharrak batzuetan egurrezko pieza berriekin eta bestetan hormigoizko estalkiekin ordeztzen dira.

la eraikin guztiak honela daude osatuta: Behe solairua edo erdisotoa (topografiaren arabera), etxebizitza solairua eta ganbara estalkipean edo teilatupean. Etxebizitza gisa erabiltzen den eremuak ez du solairu guztia betetzen. Askotan, zati bat ganbara handitzeko erabiltzen da. Izan ere, nekazaritza-abeltzantza ustialekuetako eraikinak izan zirenez, etxebizitza gisa erabiltzeaz gain, erabilera horietarako ere eremu zabalak izaten dituzte.

Kasu askotan, bi solairuek ibilgailuentzako sarrera izaten dute kanpotik, bai topografia aprobetxatuz edo bestela arrapala bidezkoak, horrela gurdiak eta traktoreak goiko solairura iritsi ahal izateko.

Oro har, fatxadak lauak izaten dira, hegaliak eta leiho zabalik gabe. Hala ere, baserri nobleenetan ezkaratzak edo eguraldi txarretik babesteko aterpeak egoten dira.

Materialei dagokionez, jatorrizko egitura egurrezkoa da, eta kasu batzuetan, hormigoizko elementuekin ordeztu da. Kanpoaldeko karga hormak harrizkoak dira, eta teilatua, gehienetan bi isurialdekoa, zeramikazko teila arabiarrez estalia.

Fatxaden kanpoko akabera emokadura bitartez eginda egoten da, eta batzuetan karearekin zuritzen da. Fatxada batzuetan, egurrezko egitura nagusia bilbadura moduan ikusten da kanpotik, eta zuloak bistako adreiluarekin, harlagaitzezko emokadura edo egurrezko pieza irregularrez betetzen dira. Kanpoko zurgintza egurrezkoa izaten da.

Baserri askotan, urtetan zehar, eraikin berriak erantsi dira. Askotan, eraikin berri horiek erabiltzen ziren etxebizitza gisa, eta baserri osoa abereak, lastoa eta belarra gordetzeko erabiltzen zuten. Halaber, ohikoa zen baserriei erantsita egurrez egindako lastategiak egotea.



2.2 Interes bereziko eraikin eta elementuak.

Interes bereziko eraikin eta elementuei dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egindako Ondare Historiko-Arkitetkonikoaren Inbentarioen arabera, Altzoko udalerrian honako hauek barne hartu dira Ondare Historiko-Arkitetkonikoan:

- . Arretxe baserria.
- . Zuaznabar Haundi baserria.
- . Legarre baserria.
- . Etxeberri baserria.
- . Iriarte baserria.
- . San Salvador eliza.
- . Jasokunde eliza.
- . Santa Barbara ermita.
- . Zuaznabar Barrena baserria.
- . Jauregi baserria.
- . Oiarbide baserria.
- . Goikoetxe baserria.
- . San Salvador Behekoa errota.
- . Apaizetxea.
- . Iartza etxea.
- . Udaletxea (Altzo Muino)
- . Jauregi Goena baserria (Altzo Muino)
- . Oregi baserria (Altzo Muino-Txarama)
- . "Imazen Pagoa" zuhaitza (Altzo Muino)
- . Otsegi baserria (Altzo Muino)
- . Aizpe baserria (Altzo Muino)
- . Lizarribar baserria (Altzo Muino)
- . Borda baserria (Altzo Azpi)
- . Altzo Azpiko apaizetxea (Altzo Azpi)
- . "Konde Errota" errota (Altzo Azpi)
- . Ipintza Haundi baserria (Altzo Azpi)
- . Artzadun "Domingorena" baserria (Altzo Muino)
- . Mendizabal baserria (Altzo Muino)
- . Zialtzeka baserria (Altzo Muino)
- . "Altzoko Errota" errota.
- . Aizpe baserriaren ondoko iturria (Altzo Muino)
- . "Errota Txiki" errota (Altzo Azpi)
- . Olazabal Haundi baserria (Altzo Azpi)
- . "Iturri Zaharra" iturria (Altzo Azpi)
- . Arrieskalletako galtzada.
- . Pagoaundi (Tumulua)
- . Artzadun Bitarte baserria.
- . Berakoetxea baserria.
- . Otsabioko dolmena.
- . Azterreka Goikoa errota.



2.3. Interes bereziko eraikinak eta elementuak babesteko erregimena.

Bi babes erregimen ezartzen dira:

- Babes erregimen zorrotza.

Erregimen zorrotzpean dauden ondasunetan egin daitezken aldaketak Eusko Jaurlaritzak Ondare hiritartu eta eraikia birgaitzeko jardueri buruzko ekainaren 30eko 214/1996 era abenduaren 26ko 308/2000 Dekretuetan adierazitako birgaitze aldaketen araberakoak izango dira.

- Oinarrizko babes erregimena.

Oinarrizko babes erregimenpean dauden ondasunetan birgaitzak egin ahal izateko, eraikinaren bolumetria, kanpoko itxura eta oinarrizko egitura eta egitama errespetatu behar dira. Aldaketa edo birgaitza horiek lehen aipatutako ekainaren 30eko 214/1996 eta abenduaren 26ko 308/2000 Dekretuetan Eraberritze atalean zehazten dira, eta salbuespenetan, eraberritze eta finkatze lanetan, betiere forma eta tipologia ezaugarriak aldatzen ez badira, horrela eraikinaren balioak mantendu ahal izateko.

* Babes erregimen zorrotzpean dauden elementu arkitektonikoak.

- . Arretxe baserria.
- . Zuaznabar Haundi baserria.
- . Legarre baserria.
- . Etxeberri baserria.
- . Iriarte baserria.
- . San Salvador eliza.
- . Jasokunde eliza.

* Oinarrizko babes erregimenpean dauden elementu arkitektonikoak.

Aurreko zerrendan aipatu ez diren eta 2.2 puntuan zehazten diren intereseko eraikin eta elementuak oinarrizko babes erregimenpean egongo dira.

* Monumentu izendatu beharreko intereseko arkeologiaguneak:

- . Olazabalko San Salvador eliza.
- . Pagoandiko tumulua.
- . Otsabioko trikuharria.

Monumentu izendatu beharreko intereseko arkeologiaguneei 7/1990 legeak bere 45.5 artikuluan zehaztutako babes erregimena ezarriko zaie.

Bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikoko estazio megalitiko guztiei Monumentu Multzoaren kategoria eman zaie, 2001eko otsailak 5eko (2001eko martxoaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 45 zenbakia) ebazpenean aurreikusitako babes erregimena bete beharko dutelarik.



Ondorengo monumentu megalitikoak Altzoko udalari dagozkio:

.- Otsabioko trikuharria. Edozein jarduketan Kultur Ondareari buruzko 7/1990 legea bete beharko da.

2.4. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 1997ko irailaren 11n emandako ebazpenaren barne dauden eremu eta elementuak.

“A” mailako Ustezko Arkeologiaguneak.

- Etxeberri baserria.
- Arretxe baserria.
- Berakoetxea baserria.
- Artzadun Domingonea baserria.
- Artzadun Bitarte baserria.
- Aispe baserria.
- Goikoetxe baserria.
- Jauregi baserria.
- Oiarbide baserria.
- Legarre baserria.
- Izagirre baserria.
- Yatza baserria.
- Zuaznabar Goikoa/Padres Carmelitas baserria.
- Olazabal baserria.
- Ipintza Aundi baserria.

“B” mailako Ustezko Arkeologiaguneak.

- Jasokundeko Andre Mariaren eliza.
- Santa Bárbara ermita.

“D” mailako Ustezko Arkeologiaguneak.

- Azterreka Goikoa errota.
- Altzoko errota Goikoa/San Salvador Goikoa errota.
- Altzoko errota Bekoa/ San Salvador Bekoa errota.

Eremu horietan derrigorrez bete beharko da uztailaren 3ko 7/1990 legean, Kultur Ondareari buruzkoan, 49. artikuluan xedatzen dena.

3. HIRIGINTZAKO ARAUAK. KATALOGATUTAKO HIRIGINTZA ONDAREA BABESTEKO ARAUAK.

3.1. Katalogatutako elementuen babes erregimena formulatzea.

Indarrean dagoen hirigintza legerian xedatutakoari jarraiki, katalogo honen helburua, alde batetik Altzoko udalerrian dauden eraikinak eta ondasun eta elementu naturalak zenbatzea da. Izan ere, ondasun eta elementu horiek, kultura, historia, ekologia edo natura aldetik, zientzia aldetik eta abar duten interesa dela eta, hondatu ditzaketen ekintzetatik babestu behar dira.



Zerrenda hau katalogatutako elementuen zerrendak osatzen du, dokumentu honetan bertan aurki daitekeena.

Ondasun eta elementu horiek guztiak dokumentu honetan zehazten diren eta indarrean dauden bestelako lege xedapenen babes erregimenpean daude.

3.2 Katalogatutako ondasun eta elementuen babes erregimen orokorra.

- Katalogatutako ondasun eta elementuak ezingo dira hondatu. Dena dela, baliorik gabeko eranskinak edo benetako balioa duten elementuak gutxiesten dituztenak kentzeko lanak egin ahal izango dira.

- Aldez aurretik beharrezko udal baimena eskatu ondoren, ondasunaren jabeak edo sustatzaileak proiektatutako lanak egokiak diren kontsultatuko du udaletxean. Kontsulta hori ezarritako babes neurriak betetzen diren jakiteko egingo da, baita eraikinean babestu beharreko elementu ezberdinak zein diren zehazteko ere.

Horretarako, jabeak edo sustatzaileak aurreproiektu bat edo egin nahi dituen lanak zehazki azaltzen dituen dokumentu bat aurkeztu beharko du udaletxean.

Udaletxeak, aipatutako kontsulta aztertu ondoren, ebazpen bat emango du, eta ebazpen horretan, lanetarako baimena emateaz gain, baldintza gehigarriak ere eman ditzake.

Hala ere, jabeak edo sustatzaileak baimen eskaera zuzenean bete dezake. Hala ere, aurkeztutako proiektua aurrera eraman ahal izateko, udal ebazpenean zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte, eta kasu batzuetan, igorritako txosten teknikoek babes neurriak betetzen ez direla esaten badute, eskaera atzera bota dezake udalak.

- Kontsulta edo eraikuntza proiektua edo lan proiektua dagokion erakundetara bidali beharko da, hau da, Eusko Jaurlaritzara edo Gipuzkoako Foru Aldundira, betiere proiektatutako lanak erakunde horietan eskuartzeko ahalmen legala badute.

- Katalogatutako ondasunetan egiten diren lanek aurreko paragrafoetan zehaztutako ebazpenetan xedatutako babes baldintzak bete beharko dituzte.

- Eraikinak edo elementuak aurreko egoeran daudela zehazteko, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 legeak 36. artikuluan xedatutako prozedurak jarraitu beharko dira.



PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE ALTZO_APROBACIÓN INICIAL

ALTZOKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA_HASIERAKO ONARPENA

- Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak 1997ko irailaren 11n emandako ebazpenaren barne dauden eremu eta elementuak, ebazpen horretan zehazten den babes arkeologikoaren erregimenpean egongo dira.

Altzo, 2009ko abuztua.

Celia Lana Ranz

Miren Muñagorri Múgica

Mainer Romo Arizmendi

Mª Jose Moreno Juan